ARRIAGA

Txostena 2007 Memoria

TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

ARRIAGA




AVENTURA EN EL TEATRO

| | |
|---|---|
| **Aurkezpena-gutuna** | **5** |
| **Administrazio batzordea** | **7** |
| **2007ko ikuskizunak** | **11** |
| **ZINEBI 2007** | **47** |
| **Kolaborazioak** | **53** |
| **Estatistikak** | **57** |
| **Alokairuan gauzatutako jarduerak** | **67** |
| **Azpiegitura eta zerbitzuak** | **71** |
| **Antzokiko produkzioak** | **75** |
| **Esker onak** | **79** |

| | |
|---|---|
| Carta de presentación | 5 |
| Consejo de administración | 7 |
| Espectáculos 2007 | 11 |
| ZINEBI 2007 | 47 |
| Colaboraciones | 53 |
| Estadísticas | 57 |
| Eventos desarrollados en alquiler | 67 |
| Infraestructura y servicios | 71 |
| Producciones propias | 75 |
| Agradecimientos | 79 |

ARRIAGA

Urtero bezala, Arriaga Antzokiak urtean zehar egindako jardueren eta lortutako emaitzen memoria argitaratzen du publikoari ezagutzera emateko eta egindakoari buruzko balantzea eta gogoeta egiteko.

Argitalpen honetan gure eszenatokitik pasa diren ikuskizun guztien laburpen txiki bat daukazue, eta bertan aurkituko duzue baita ere lortutako diru-sarreren, ikusle kopuruaren, okupazio mailaren eta beste datu garrantzitsu batzuen aipamenak. Aurrerapen bezala, esan dezakegu emaitzak onak izan direla. Edozein antzokik nahiko lituzkeen obrak eta artistak ekarri dizkiogu gure publikoari. Eta are garrantzitsuagoa dena, publikoak, gizarte moderno eta anitz bati dagokion bezala, harrera ona egin zien ikuskizunei. Izan ere, gure publikoak leialtasunez erantzun die Arriagak duela hogei urtetik hona garatu dituen ekimenei eta leialtasun hori areagotuz joan da urteak igaro ahala.

Bereziki azpimarratu nahi dugu “Abentura antzokian” produkzioa. Haurrei zuzendutako ikuskizun hau apirila eta maiatza bitartean burutu zen Antzokian. Bilboko eta Bizkaiko milaka eta milaka ume Antzokira hurbildu ziren gizateria bezain zaharra izan arren beti bizirik dagoen (izan ere ikuskizuna hasten den bakoitzean berpiztu egiten baita) arte honetan parte hartzeko. Gainera, umeek hain harro sentiarazten gaituen eraikin eder hau ezagutzeko aukera izan zuten. Hiru muntaiez osatutako ikuskizuna eskaini genien. Horiek ikusteko haurrek eraikinaren atari, pasabide, eszenatoki eta besaulki-patiotik zehar ibili behar izan zuten, leku magiko bat ezagutuz eta aztertuz... antzoki batek ezkutatzen dituen sorpresa amaigabeak deskubrituz. Ziur gaude ume horiek, ikusle heldu bihurtzen direnean, irribarrez gogoratuko dutela 2007ko udaberrian deskubritutako leku hori.

Eta bukatu aurretik: eskerrik asko. Eskerrik asko babesleei hain beharrezkoa dugun laguntza eskaintzeagatik eta eskerrik asko Arriagaren Adiskideei beren babesagatik. Eskerrik asko gure eszenatokia adimenez eta pasioz bete zuten artista guztiei, eta nola ez, eskerrik asko zuei, Antzokiko ikusleei, zuei esker jarraitzen duelako aurrera abentura zoragarri honek.

Como todos los años el Teatro Arriaga publica su memoria de actividades y resultados para que sean del conocimiento público y también con la pretensión de hacer balance y de reflexionar en cuanto se ha hecho.

En las páginas de esta publicación hallarán ustedes una breve reseña de todos los espectáculos que se pasearon por nuestro escenario, los ingresos que obtuvieron, el número de espectadores que acudieron a ver cada uno de ellos, los porcentajes de ocupación y otros datos de interés. Como adelanto les podemos decir que el resultado es satisfactorio, que pudimos ofrecer a nuestro público títulos y artistas que serían el orgullo de cualquier teatro y, lo más importante, que fueron acogidos por un público cálido y numeroso, como corresponde a una sociedad plural y moderna que ha sabido responder con una fidelidad creciente a la iniciativa que el Arriaga viene desarrollando desde hace más de veinte años.

Mención aparte creemos que merece “Aventura en el teatro”, la producción del espectáculo infantil que el Teatro llevó a cabo entre los meses de abril y mayo. Miles de niños y niñas de Bilbao y de Bizkaia se acercaron al Teatro para conocer y participar en un arte que es tan viejo como la humanidad pero que está siempre vivo porque nace cada vez que una representación comienza. Fue además para ellos una toma de contacto con este hermoso edificio, del que tan legítimamente orgullosos nos sentimos. El triple montaje que componía el espectáculo les obligó a recorrer su vestíbulo, sus pasillos, el escenario y el patio de butacas, conociendo y explorando el lugar mágico, la caja de sorpresas inagotables que siempre es un teatro. Estamos seguros de que muchos de aquellos niños y niñas, cuando ya mayores se conviertan en espectadores adultos, reservarán una sonrisa para este lugar por el que se pasearon en la primavera de 2007.

Y antes de terminar, gracias. Gracias a los patrocinadores por su ayuda tan necesaria y gracias a los Amigos/as del Arriaga por su apoyo. Gracias a todos los artistas que iluminaron nuestro escenario con su inteligencia y su pasión y, como siempre, gracias especialmente a todos ustedes espectadores y espectadoras del Teatro que hacen posible y dan sentido a esta magnífica aventura.

**Ibone Bengoetxea Otaolea**
**Arriaga Antzokiko Presidente Eragilea**
Presidenta Efectiva del Teatro Arriaga


LA REVISTA NEGRA

## ADMINISTRAZIO BATZORDEA ETA ARRIAGA ANTZOKIAREN ZUZENDARITZA

CONSEJO DE ADMINISTRACIÓN Y DIRECCIÓN DEL TEATRO ARRIAGA

## ARRIAGA ANTZOKIAREN KONTSEILARIAK
## RELACIÓN DE CONSEJEROS DEL TEATRO ARRIAGA

### Irten den kontseilua
Consejo saliente

**BEREZKO PRESIDENTEA**
PRESIDENTE NATO

Excmo. Sr. Don Iñaki Azkuna Urreta

**PRESIDENTE ERAGILEA**
PRESIDENTE EFECTIVO

Don Jon Sanchez Ibarluzea

**KONTSEILUKIDEAK**
CONSEJEROS

Ilma. Sra. Belén Greaves Vadillo
Doña Ana María de Castro Rubalcaba
Doña Nerea Arribas Sabando
Doña Virginia Aguado Arnaiz
Doña Concepción López Ledesma
Don Luis Hermosa Santa María
Doña Ana Isabel Herrero Duro
Doña Beatriz Calvo Fernández
Don Jesús Sanz Salamanca
Don Fernando García de Cortázar
Don José María Oleaga Zalvidea
Don Txema Gonzalo Casal
Don Francisco Javier García Díez

### Sartu den kontseilua
Consejo entrante

**BEREZKO PRESIDENTEA**
PRESIDENTE NATO

Excmo. Sr. Don Iñaki Azkuna Urreta

**PRESIDENTE ERAGILEA**
PRESIDENTA EFECTIVA

Doña Ibone Bengoetxea Otaolea

**KONTSEILUKIDEAK**
CONSEJEROS

Don Andoni Aldekoa de la Torre
Don Luis Hermosa Santamaria
Don Txema Oleaga Zalbidea
Don Txema Gonzalo Casal
Don Javier Viar Olloqui
Doña Begoña Salinas Solano
Don Pio Ortiz de Pinedo Maza

## ARRIAGA ANTZOKIAREN LANGILEAK (07-12-31ean)
## PERSONAL DEL TEATRO ARRIAGA (al 31-12-07)

| IZENA<br>NOMBRE | LANPOSTUA<br>PUESTO DE TRABAJO |
|---|---|
| José Ignacio Malaina Sánchez | **Zuzendari Nagusia** Director Gerente |
| Miren García Bernaola | **Zuzendaritza Laguntzailea** Ayudante de Dirección |
| Natividad Alonso Alonso | **Giza Baliabideetarako Administrari Laguntzailea**<br>Auxiliar Administrativo de RR.HH. |
| Jesús Mª Rico Hernández | **Administrari Laguntzailea-Kontabilitatea**<br>Auxiliar Administrativo-Contabilidad |
| Itziar Olalde Rementería | **Teknikari Laguntzailea** Técnico Auxiliar |
| Fernando Seisas López | **Teknikari Laguntzailea** Técnico Auxiliar |
| Jon Barañano Iraider | **Teknikari Laguntzailea** Técnico Auxiliar |
| Javier Peñas Peñas | **Teknikari Laguntzailea** Técnico Auxiliar |
| María Teresa Pérez Fernández | **Teknikari Laguntzailea** Técnico Auxiliar |
| Miguel Calle Herrero | **Areto burua** Jefe de sala |
| Sara Villa Arroyo | **Aretozaina** Acomodadora |
| Daniel Díez González | **Aretozaina** Acomodador |
| José Manuel Sánchez San Juan | **Aretozaina** Acomodador |
| Antonio Soto Ibáñez | **Aretozaina** Acomodador |
| Andoni Olivares Ijalba | **Programazio eta Operazioetako Zuzendaria**<br>Director de Programación y Operaciones |
| Izaskun Etxebarria Goikoetxea | **Programazio Arduraduna** Responsable de Programación |
| María Dolores del Campo Serrano | **Programazioko Teknikaria** Técnico Programación |
| Javier Iturrioz Uriondo | **Zuzendari teknikoa** Director Técnico |
| José Antonio Ochoa Oribe | **Zuzendari teknikoa** Director Técnico |
| Joseba Erkiaga Cilloniz | **Errejidorea** Regidor |
| Oscar Armendáriz Lucarini | **Jostundegiko Arduraduna** Responsable Sastrería |
| Antonio de la Cruz Arias | **Elektrikarien Burua** Jefe Eléctrico |
| Ángel Mª Alonso García | **Argiketaria** Electricista |
| Carlos Albizuri Martínez | **Argiketaria** Electricista |
| José Antonio Becerra | **Argiketaria** Electricista |
| Gorka Ochoa Gorostiza | **Argiketaria** Electricista |
| Fco. Javier Saiz Blanco | **Argiketaria** Electricista |
| Carlos Albizuri | **Tramoiaria** Tramoyista |
| Ibon Andueza Elorza | **Tramoiaria** Tramoyista |
| Germán Cundín Pérez | **Tramoiaria** Tramoyista |
| Fco. Javier Izagirre Goikolea | **Tramoiaria** Tramoyista |
| Joseba Urkizu Villalain | **Tramoiaria** Tramoyista |
| Darío de Castro | **Tramoiarien Laguntzailea** Ayudante de Tramoyista |
| Laureano Fernández Iriarte | **Tramoiarien Laguntzailea** Ayudante de Tramoyista |
| María Ángeles Olea Bilbao | **Zinema Jaialdiko Idazkaria Orokorra**<br>Secretaria General Festival de Cine |
| Lucía Goitia Calzada | **Administrazioa-Zinebi** Administración-Zinebi |

## AHOLKULARI ARTISTIKOA
## ASESOR ARTÍSTICO

Lluís Pasqual



## 2007ko IKUSKIZUNAK
ESPECTÁCULOS 2007

## ROMANCERO GITANO

DANTZA
DANZA

urtarrila 9 - 13 enero

**Andaluziako Flamenko Baletaren buru den eta azken hamarkadetako dantzaririk handienetakoa izan den Cristina Hoyosek eta El Junco lehen dantzariak Federico García Lorcaren izen bereko poeman oinarritutako dantza ikuskizuna eskaini ziguten. Flamenkoaren pasio guztia Pedro Sierrak zuzenean interpretatutako musikarekin, Pedro Morenok diseinatutako jantziekin eta José Carlos Plazaren eszena zuzendaritzarekin nahastuta.**

Cristina Hoyos, una de las más grandes figuras del baile de las últimas décadas, al frente del Ballet Flamenco de Andalucía y con El Junco como primer bailarín nos ofrecieron un espectáculo de danza basado en el poemario del mismo título de Federico García Lorca. Toda la pasión del flamenco con la música de Pedro Sierra interpretada en directo, el vestuario de Pedro Moreno y la dirección escénica de José Carlos Plaza.



## EL SUEÑO DE UNA NOCHE DE VERANO

ANTZERKIA
TEATRO

urtarrila 17 - 19 enero

**Muntaia berri honen ardatza hauxe da: Mediterraneoko hondartza batera eramatea Shakespeare-k Ingalaterrako baso batean irudikatu zuen mundu fantastikoa, non arrazoia eta desira, ametsa eta bijilia nahasten diren. Antonio Carmonak sortutako abestiek, Tamzin Townsend britainiarraren zuzendaritzak eta bereziki hautatutako aktore zerrenda baten interpretazioak, Asier Etxandia horien artean, bizi berri bat ematen diote testu hilezin honi.**

Trasladar a una playa mediterránea el mundo fantástico, donde se mezclan razón y deseo, sueño y vigilia, que Shakespeare imaginó en un bosque inglés es la idea matriz de este nuevo montaje. Las canciones compuestas por Antonio Carmona, la dirección de la británica Tamzin Townsend y la interpretación de un escogido elenco de intérpretes, con Asier Etxeandia entre ellos, dieron nueva vida a este texto inmortal.





## AMA, QUIERO SER LEHENDAKARI

ANTZERKIA
TEATRO

urtarrila 20 - 24 enero

**Famili bazkari batean, herri honetako beste edozein familiaren bazkarietan bezala, haserre eta lehia txikiak sortzen dira. Bost seme-alabek nahi dute lehendakari izatea. Gure gizarte, politika eta politikariei buruzko ikuspegi umoretsua eskaintzen digu antzezlan honek. Aizpea Goenaga da egile eta zuzendaria eta Glu Glu ekoizlea. Ane Gabarain, Patxi Pérez, Maribel Salas, Galder Pérez eta Mari Cruz Melgosak interpretatu zituzten lehendakaritzarako bost hautagaiak, eta Loli Astoreka ikusi genuen horien guztien amaren paperean.**

En una comida familiar, de una familia como hay tantas en este país, un día surge un nuevo motivo de roce. Los cinco hijos quieren ser lehendakari. Una visión llena de humor sobre nuestra sociedad, la política y los políticos, de la que es autora y directora Aizpea Goenaga y producida por Glu Glu. Ane Gabarain, Patxi Pérez, Maribel Salas, Galder Pérez y Mari Cruz Melgosa interpretaron a los cinco pretendientes a mudarse a Ajuria Enea. Loli Astoreka representó a la madre de todos ellos.





## TXANOGORRITXO/ CAPERUCITA

HAURRENTZAKO ANTZERKIA
TEATRO INFANTIL

urtarrila 24 enero

**Charles Perrault-en ipuin klasikoaren antzerkirako bertsioa, Galder Pérezek egin eta zuzendutakoa eta Glu Gluk ekoitzitakoa. Eskola kanpainan eskaini zitzaien gaztetxoei. Txanogorritxo, basoa, amona eta otsoa ikusiko ditugu berriro proposamen gozo eta dibertagarri honetan, bilobei ipuinak irakurtzen dizkieten aitona-amonentzako omenaldia izan nahi duen antzezlan honetan.**

Una nueva adaptación teatral del clásico cuento de Charles Perrault, realizada y dirigida por Galder Pérez y producida por Glu Glu, que se ofreció a los espectadores más jóvenes en campaña escolar. Vuelven a escena Caperucita, el bosque, la abuelita y el lobo en una propuesta dulce y divertida, que quiere ser también un homenaje a los abuelos y abuelas que siguen leyendo y contando cuentos a sus nietos y nietas.





## SZEGED CONTEMPORARY DANCE COMPANY

DANTZA
DANZA

urtarrila 26 - 27 enero

**Tamás Juronics-ek zuzentzen du Szeged Contemporary Dance Company 1993tik eta Hungariako egungo dantzaren erreferentzietako bat da. Konpainiak ospea eta arrakasta lortu du Europa osoan. Dantza garaikide akrobatikoa "dance theatre"-ko elementuekin eta elementu ikusgarriekin modu kitzikagarrian nahasten dituen konpainia honek programa bikoitza eskaini zigun, non besteak beste, Carl Orff-en "Carmina Burana" eta Georges Bizet-en "Carmen" obrak interpretatu zituen.**

La Szeged Contemporary Dance Company, dirigida desde 1993 por Tamás Juronics, es uno de los puntos de referencia de la danza actual en Hungría, y ha alcanzado fama y prestigio en toda Europa. Con su excitante combinación de danza contemporánea acrobática con elementos de "dance theatre" y elementos visuales nos ofreció un programa doble que incluía "Carmina Burana" de Carl Orff y "Carmen" de Georges Bizet.

## DON GIL DE LAS CALZAS VERDES

ANTZERKIA
TEATRO

otsaila 1 - 3 febrero

**Eduardo Vascok zuzentzen duen Compañía Nacional de Teatro Clásico-k "Don Gil de las calzas verdes" ikuskizuna eskaini zigun. Emakume batek ondra galdu du bere galaiaren besoetan, honek utzi egin du, eta emakumeak gizon jantzirik haren atzetik abiatzea erabakitzen du ordain bila. Hasieran ohore drama moduan abiatzen den obra hau komedia bilakatzen da. Don Gil de las calzas verdes gure antzerki klasikoko maisu den Tirso de Molinaren komediarik ezagunena da, baita gehien taularatu dena ere.**

La Compañía Nacional de Teatro Clásico, con la dirección de su titular Eduardo Vasco nos ofreció "Don Gil de las calzas verdes"; la historia de la mujer, que tras verse deshonrada y abandonada por su galán, decide seguirle disfrazada de hombre para obtener una reparación. La obra, que comienza como un drama de honor para derivar hacia la comedia, es una de las más conocidas y representadas de su autor, Tirso de Molina, una de las cumbres de nuestro teatro clásico.

TEATRO COMPAÑÍA NACIONAL CLÁSICO







## ARTEA

ANTZERKIA
TEATRO

### otsaila 12 - 13 febrero

**Joseba Apaolaza, Asier Hormaza eta Ramon Agirre antzerki, zinema eta telebistako hiru profesional euskaldun bikain hauek dira Txalo S.L.-ren produkzio honen interpreteak eta Carlos Zabala, berriz, zuzendaria. Guri euskaraz iritsi zitzaigun obra hau 35 hizkuntza baino gehiagotara itzulia izan da. "Artea" ("Art" frantseseko jatorrizko lanean) hiru adiskideren historia da. Adiskideetako batek koadro zuri-zuri bat erosten du eta horrek eztabaida piztuko du adiskideen artean.**

Joseba Apaolaza, Asier Hormaza y Ramon Agirre, tres extraordinarios profesionales vascos del teatro, el cine y la televisión, con la producción de Txalo S. L. y la dirección de Carlos Zabala nos ofrecieron en euskera la obra que se ha traducido a más de 35 idiomas. Se trata de "Artea" ("Art" en el original francés), donde se cuenta la historia de tres amigos y del conflicto que desencadena la compra por uno de ellos de un cuadro completamente blanco.





## SOIRÉE LUCÍA LACARRA

DANTZA
DANZA

### otsaila 16 - 17 febrero

**Munich-eko Operaren Baleteko lehen dantzariek lagundurik, Lucía Lacarrak, gure garaiko dantzaririk handienetakoak ikuskizun bat eskaini zigun, non estilo klasikoa, neoklasikoa eta garaikidea nahastu zituen. Zumaian, 1975ean jaiotako gazte euskaldun honek Victor Ullateren eta Roland Petit-en konpainietan lan egin du eta San Francisco Ballet-eko lehen dantzari izan da. Gaur egun Munich-eko Operaren Baleteko dantzari nagusia da.**

Acompañada de primeras figuras del Ballet de la Ópera de Munich, Lucía Lacarra, una de las grandes figuras actuales de la danza, nos ofreció un espectáculo donde se conjugaban los estilos clásico, neoclásico y contemporáneo. Esta joven vasca, nacida en Zumaia en 1975, trabajó en las compañías de Víctor Ullate y Roland Petit, y ha sido primera bailarina del San Francisco Ballet. En la actualidad es bailarina estelar del Ballet de la Ópera de Munich.



## JOANNA MACGREGOR

KONTZERTUA
CONCIERTO

otsaila 20 febrero

**Joanna MacGregorek 50 herrialde baino gehiagotan jo du, gaur egungo musika munduko artista berritzaileenetarikotzat jotzen da eta musika genero desberdinenak elkarrekin lotzeko ahaleginetan jardun du bizitza osoan. Horren lekuko dugu Arriaga Antzokian eskaini zuen ikuskizuna: Amerikako musika tradizionaletik hasita Johann Sebastian Bachen "Goldbergen Bariazio"etaraino, Astor Piazzollaren tangoetatik igaroz.**

Joanna Macgregor, que ha actuado en más de 50 países y está considerada una de las artistas más innovadoras de la música de nuestros días, ha dedicado su vida a conectar entre sí los más diversos y variados géneros musicales. Prueba de ello fue el programa interpretado en el Arriaga, que incluía desde música tradicional americana, hasta las "Variaciones Goldberg" de Johann Sebastián Bach, pasando por los tangos de Astor Piazzolla.

bbk



## AUTO

ANTZERKIA
TEATRO

otsaila 24 - 25 febrero

**Ernesto Caballero, egun ikus daitekeen antzerki bizienetako, berritzaileenetako eta interesgarrienetako baten sortzailea, da "Auto" muntaiaren testuaren egilea eta zuzendaria. Antzezlan honetan gure klase ertainaren isla diren lau pertsona elkartzen dira auzitegi batean mendian igarotako asteburu gorabeheratsu baten lekukotasuna emateko. Carmen Machi, Eva Santolaria, Marisol Rolandi eta Vicente Díezek interpretatu zuten gure gizartearen ikuspegi garratz eta dibertigarria eskaintzen duen antzezlan hau.**

Ernesto Caballero, considerado el creador de uno de los teatros más vivos y renovadores que pueden verse en la actualidad, es autor del texto y director del montaje de "Auto". En él cuatro personajes, reflejo de nuestra clase media, están citados para declarar ante el juzgado sobre lo que sucedió en un accidentado fin de semana. Carmen Machi, Eva Santolaria, Marisol Rolandi y Vicente Díez nos ofrecieron esta ácida y divertida visión de nuestra sociedad.





# DEMASIADO HUMANO

ANTZERKIA
TEATRO

otsaila 27 - 28 febrero

**Traspasos konpainia gasteiztarrak eskaini zigun Nietzscheren azken egunei buruzko muntaia hau. Filosofo alemanak hondoa jotzen du psikikoki eta bere baitan ixten da. Pertsonaiak antzezlanean dioen guztia Nietzschek benetan esana zuen bere bizitzako uneren batean. Jaime Romo algortarra da testu honen egilea. Jaime Romo filosofian lizentziaduna, nobelagilea eta kazetaria da eta Friedrich Nieztscheren bizi eta sormen drama ikertzen du antzezlan honetan. Lope de Vega antzerki sari ospetsua lortu zuen antzezlan honekin.**

La compañía gasteiztarra Traspasos nos ofreció este montaje sobre los últimos días de Friedrich Nietzsche tras su hundimiento psíquico y posterior encierro. Todo lo que en ella dice el personaje Nietzsche lo dijo en algún momento de su vida el pensador. El autor de este texto, que rastrea el drama vital y creativo del filósofo alemán, es el algorteño Jaime Romo, licenciado en Filosofía, periodista y novelista, que con esta obra consiguió el prestigioso Premio Lope de Vega.



# LA FUGA

ESZENA IREKIA
ESCENA ABIERTA

martxoa 2 marzo

**Eszena Irekian Kantabriako La Fuga taldea ikusteko aukera izan genuen. Aurreko urtean zuzeneko disko bat grabatu eta geografia osoan barrenako bira arrakastatsua egin ondoren, taldeak estudio batean sartzea erabaki zuen beren abesti akustikoak grabatzeko. Eszenatokian, argi utzi zuten beren abestiak oso ondo moldatzen direla "unplugged" erara jotzen direnean, indar izpirik galdu gabe alegia.**

En el apartado de Escena Abierta nos visitó el grupo cántabro La Fuga. Tras la grabación en directo de un disco el año pasado y la exitosa gira posterior que les llevó por toda la geografía española, decidieron encerrarse en un estudio para grabar sus temas en acústico. Sobre el escenario nos demostraron que sus canciones se ajustaban muy bien al "desenchufado" sin perder ni un ápice de su fuerza.



## PALOMA SAN BASILIO

ESZENA IREKIA
ESCENA ABIERTA

martxoa 3 marzo

**Paloma San Basilio aktoresa eta abeslari bikainak bira bat egin zuen bere ibilbide artistikoaren 30. urteurrena ospatzeko eta bira horren barruan hona ere etorri zen. "Evita", "El Hombre de la Mancha", "Victor o Victoria" edo "My Fair Lady" bezalako musikal arrakastatsuak interpretatu ditu, 27 disko argitaratu ditu, guztiak oso arrakastatsuak, eta José Carreras eta Plácido Domingo bezalako abeslariekin abestu du.**

Dentro de la gira con la que celebraba sus 30 años de carrera artística, nos visitó la gran actriz y cantante Paloma San Basilio. Protagonista de los musicales de más éxito como "Evita", "El Hombre de la Mancha", "Victor o Victoria" o "My Fair Lady", ha publicado más de 27 discos, todos con un gran éxito, y ha compartido escenario con cantantes de la talla de José Carreras y Plácido Domingo.



## DANIEL HOPE

KONTZERTUA
CONCIERTO

martxoa 6 marzo

**Daniel Hope-k oso izen ona lortu du munduan bere musika sormenari eta bizitasunari esker. Orkestra eta zuzendari nagusiekin batera jo izan du, adibidez, Masur, Rostropovich, Norrington, Menuhin edo Frübeck de Burgos-ekin. Kritika adituaren laudorioak jaso dituen biolin-jole honek Bilbon kontzertu bat eskaini zuen Sebastián Knauer piano-jolearekin batera. Kontzertu horretan Stravisnky, Schumann, Copland eta Francken obrak interpretatu zituen, besteak beste.**

Daniel Hope, que goza de una excelente reputación en el mundo entero por su creatividad y vitalidad musicales, ha actuado con las orquestas más renombradas y con directores como Masur, Rostropovich, Norrington, Menuhin o Frübeck de Burgos. Este violinista, sobre quien la crítica especializada ha volcado los más encendidos elogios, nos ofreció en Bilbao, acompañado por el pianista Sebastián Knauer, un exigente programa que incluía obras de Stravinsky, Schumann, Copland y Franck.



# PLAY STRINDBERG

**ANTZERKIA**
TEATRO

**martxoa 14 - 17** marzo

**Nuria Espert, José Luis Gómez eta Lluís Homar aktoreek (lehen aldia zen hirurak eszenatoki berean aritzen zirela) "Play Strindberg" lana eskaini ziguten, hots, Friedrich Dürrenmatt-ek eginiko August Strindberg-en "Danza macabra" lanaren bertsioa. Teatro de la Abadía-k produzitu eta Georges Lavaudant-ek zuzendu duen obra hau boxeoko borroka metaforiko baten hamabi erasoalditan banatuta dago eta komedia beltz baten moduan erakusten digu ezkondutako bikote baten arteko gupidagabeko borroka.**

Nuria Espert, José Luis Gómez y Lluís Homar, por primera vez juntos en escena, nos ofrecieron "Play Strindberg", la versión que de la "Danza macabra" de August Strindberg realizara Friedrich Dürrenmatt. Producida por el Teatro de la Abadía y dirigida por Georges Lavaudant la obra, estructurada en doce asaltos de un metafórico combate de boxeo, expone en clave de comedia negra un inclemente duelo conyugal.

Teatro de La Abadía





# JULIO BOCCA

**DANTZA**
DANZA

**martxoa 20 - 24** marzo

**Arriaga Antzokiak ezin zuen geratu ikuskizun hau publikoari eskaini gabe, izan ere, publikoak hainbat aldiz adierazi baitzuen Julio Bocca gure eszenatokietara ekartzeko gogoa. Dantza uztekotan den honetan (bakarlari bezala behintzat), Julio Boccak "Adiós hermano cruel" lana aukeratu du agur esateko. Obraren musika Lito Vitale-rena da eta koreografia, berriz, Ana María Stekleman-ena. Dantzariarekin batera, berak fundatu zuen konpainia, Argentinako Baleta, eta Cecilia Figaredo lehen dantzaria etorri zitzaizkigun.**

El Teatro Arriaga no podía dejar de ofrecer este espectáculo al público que en varias ocasiones había aclamado a Julio Bocca sobre nuestro escenario. Ahora, en el momento de su retirada del baile, al menos en su condición de intérprete, eligió para su despedida "Adiós hermano cruel", con música de Lito Vitale y coreografía de Ana María Stekelman. El Ballet Argentino, la compañía que el fundó, y la primera bailarina Cecilia Figaredo lo acompañaron.





## ESKOLA HUTSIK

HAURRENTZAKO ANTZERKIA
TEATRO INFANTIL

martxoa 27 - 28 marzo

**"Eskola hutsik" Tahar Ben Jelloun idazle marokoarraren izen bereko eleberriaren egokitzapen eszenikoa da. Goncourt saria irabazi duen lehen idazle magrebtar honen eleberriaren istorioa hauxe da: Afrikako irakasle batek egiten duen borroka ikasleak ez galtzeko. Fernando Bernués izan zen istorio xamur eta hunkigarri honen zuzendaria eta Carlos Nguema aktorea. Luis Caminok musika eta perkusioko akonpainamenduak egin zituen, eskola kanpaina baten bitartez euskaraz soilik hedatu zen lan honetan.**

"Eskola hutsik" (Escuela vacía) es la adaptación escénica de la novela del mismo título de del autor marroquí Tahar Ben Jelloun, primer escritor magrebí ganador del premio Goncourt, que cuenta la lucha de un maestro africano para no perder a sus alumnos. Distribuida mediante una campaña escolar, exclusivamente en euskera, esta historia tierna y sobrecogedora fue dirigida por Fernando Bernués e interpretada por Carlos Nguema acompañado por la música y la percusión de Luis Camino.



## CYRANO DE BERGERAC

ANTZERKIA
TEATRO

martxoa 28 - 31 marzo

**Edmond Rostand-ek 1897an estreinatu zuen XVII. mendeko benetako pertsonaia batean oinarritutako bertsoz idatziriko drama: "Cyrano de Bergerac". Orduz geroztik, obra klasiko bihurtu da eta pertsonaia, berriz, Don Juan, Hamlet edo On Kixoteren arketipoa izatera iritsi da. Concha Busto produktoreak eskaini zigun bertsioa John Strasberg-ek zuzendu zuen eta José Pedro Carriónek egin zuen Cyrano harroputz, liskargile eta isilpeko maitalearen rola.**

Basándose en un personaje real del siglo XVII, Edmond Rostand estrenó en 1897 el drama en verso titulado "Cyrano de Bergerac". Desde entonces la obra se ha convertido en un clásico y el personaje en un arquetipo a la altura de Don Juan, Hamlet o Don Quijote. Esta versión nos la ofreció la productora Concha Busto con la dirección de John Strasberg y con José Pedro Carrión como el arrogante, pendenciero y secretamente enamorado Cyrano.



## SARA BARAS

DANTZA
DANZA

**ekaina 5 - 10 junio**

**Sara Barasek eskaini zigun azken ikuskizuna, "Sabores", Parisko Théâtre Champs-Elysées Antzokian estreinatu zen eta Bilbora iritsi aurretik ondorengo hirietan ere aurkeztu zen, besteak beste: Londres, Mosku, San Petersburgo, Jerez, Buenos Aires, Bartzelona, Kordoba edo Txileko Santiago. Ia ordu eta erdi iraun zuen flamenkoaren edertasunez eta sentsazioez betetako festak. Bertan, ondorengo dantzak ikusteko aukera izan genuen: tangoa, seguiriya, zambra, alegria, tarantoa, tanguilloa, jaleos eta buleriak.**

"Sabores", el último espectáculo que nos ofreció Sara Baras se estrenó en el Théâtre des Champs-Elysées de Paris y antes de llegar a Bilbao había pasado por Londres, Moscú, San Petersburgo, Jerez, Buenos Aires, Barcelona, Córdoba o Santiago de Chile, entre otros lugares. Durante casi hora y media tangos, seguiriyas, zambras, alegrías, tarantos, tanguillos, jaleos y bulerías se sucedieron en un fiesta de belleza y sensaciones flamencas.

## DOÑA FRANCISQUITA

ZARTZUELA
ZARZUELA

**ekaina 22 - 23 junio**

**"Doña Francisquita" Madrileko Apolo Antzokian estreinatu zen 1923an. Orduz geroztik, gehien antzeztutako obretako bat bilakatu da, baita publikoak gustukoen duen lanetako bat ere. Obraren egilea, Amadeo Vives katalana, generoaren berritzailerik handienetakotzat jo izan da. Gure eszenatokietara iritsi zen bertsioa Jerezko Villamarta Antzokiak produzitu zuen. Eszena zuzendaritza Francisco Lópezen esku egon zen eta Bilboko Orkestra Sinfonikoak (BOS) ere parte hartu zuen Luis Remartínezen zuzendaritzapean.**

"Doña Francisquita" se estrenó en 1923 en el Teatro Apolo de Madrid. Desde entonces es uno de los títulos más representados y apreciados por el público, y su autor, el catalán Amadeo Vives, está considerado como el gran renovador del género. A nuestro escenario llegó en esta ocasión en una producción del Teatro Villamarta de Jerez, con la dirección escénica de Francisco López y la gran Orquesta Sinfónica de Bilbao (BOS) dirigida por Luis Remartínez.

BOS
Bilbao
Orkestra Sinfonikoa








# ABENTURA ANTZOKIAN/ AVENTURA EN EL TEATRO




Arriaga Antzokiaren ohiko jarduera alde batera utzi, eta 7 eta 12 urte bitarteko eskola-umeei Lluís Pasqualek zuzendutako "Abentura antzokian" izeneko antzerki produkzioa eskaini zitzaien bost astez. Helburua ez zen soilik haur antzerki bikain bat aurkeztea, baizik eta Bilbo eta Bizkaiko milaka haur antzerkiaren artera eta antzokira hurbiltzea, izan ere, antzokitik zehar ibili behar izan zuten kontatutako istorio hirukoitza jarraitu ahal izateko.

**Begirada hirukoitza eta hari bat bera.**
"Abentura antzokian" hari batek berak lotutako antzezlan sekuentzia da. Antzezlan hirukoitz honen espazio eszenikoa agertokia ez ezik, eraikin osoa ere izan zen. Hiru begirada desberdin izan ziren, hiru sortze-lan independente hari bakar batez loturik: abentura eta mundu ezezagun baten esplorazioa, antzokiko hainbat gunetan zehar egindako iniziazio-bidaia.

Durante cinco semanas el Teatro Arriaga dio un vuelco a su actividad normal para ofrecer a escolares de entre 7 y 12 años una producción teatral titulada "Aventura en el Teatro", dirigida por Lluís Pasqual. El objetivo no se reducía a ofrecer un estupendo montaje de teatro infantil; se pretendía acercar a varios miles de niños y niñas de Bilbao y Bizkaia al arte del teatro y al edificio del Teatro, por cuyo interior tuvieron que deambular para seguir la triple historia que les contaron.

**Una triple mirada con un hilo común.**
"Aventura en el teatro" fue una secuencia teatral unida por un hilo común. Una triple representación que tuvo como espacio escénico no sólo el escenario, sino todo el edificio. Fueron tres miradas distintas, tres creaciones independientes unidas por la aventura y la exploración de un mundo desconocido, un viaje que se desarrolló en diferentes espacios del Teatro.

## Adierazpen dramatikoko ikastaroak

**Haur antzerkiak bost astez (apirila eta maiatza) okupatu zuen Arriaga Antzokia eta horren osagarri, irakasleei Adierazpen Dramatikoko bi ikastaro eskaini zitzaizkien, bakoitza 15 ordukoa, umeek ikastetxeetan antzerkiarekin jolasten jarraitzeko aukera izan zezaten. Lehen ikastaroa, Haur Hezkuntzakoei zuzendua, Ramón Odriozola irakasleak eskaini zuen eta bigarrena, Lehen Hezkuntzari zuzendua, Carolina Ramos irakasleak.**
**Ikastaroak azaroaren 12tik abenduaren 1era bitartean egin ziren. Azaroaren 10ean, "Umeak ikusle" izeneko jardunaldi bat egin zen non Lluís Paqual, Roberto Fabretti, Juan Mata eta Ana Isabel Gallegok parte hartu zuten.**

## Cursos de expresión dramática

Como complemento a las cinco semanas de teatro infantil, que ocuparon el Teatro entre abril y mayo, se ofreció a los enseñantes interesados dos cursos de Expresión Dramática, de 15 horas cada uno, para facilitar la posibilidad de que los niños y niñas puedan en sus centros seguir jugando al teatro. El primero de ellos, pensado para la Educación Infantil fue impartido por el profesor Ramón Odriozola. El segundo dedicado a la Educación Primaria lo fue por la profesora Carolina Ramos.
Los cursos se celebraron entre el 12 de noviembre y el 1 de diciembre. Un jornada titulada "Los niños y niñas como espectadores/as" tuvo lugar el 10 de noviembre con la participación de Lluís Pasqual, Roberto Fabretti, Juan Mata y Ana Isabel Gallego.








# ABENTURA ANTZOKIAN/ AVENTURA EN EL TEATRO

**HAURRENTZAKO ANTZERKIA**TEATRO INFANTIL

**apirila 23 - maiatza 26** abril 23 - mayo 26

## ANIZETO ALFABETO / ANICETO ALFABETO

**Antzokiaren plazan, aldageletan eta korridoreetan "Hammelin" lana garatu zen, non txirulariak hizkuntzaren malabaristak ziren eta hitzok istorioak iradokitzen zituzten. Hortzmuga antzerki taldearen sortze-lan honek Julen Gabiriaren testua eta Shanti Basauriren musika izan zuen.**

En la plaza, vestíbulos y pasillos del Teatro se desarrolló una propuesta "Hammelin", en la que los flautistas eran malabaristas de palabras que sugerían historias. Una creación del grupo de teatro Hortzmuga, con texto de Julen Gabiria y música de Shanti Basauri.

## DENBORAREN MUSEOA / EL MUSEO DEL TIEMPO

**Agertokian lur-azpiko mundu sekretu bat sortu zen, non Bilboko lurpea antzezten zen. Bertan, umeek beren objekturik kuttunenak gordetzen dituzte, ahazturik geratu ez daitezen eta objektuek gordetzen dituzten oroimenak betirako babestu daitezen. Museo sekretu eta isilpeko bat, denbora gordetzen duen museo bat. Muntaia Fernando Bernuések zuzendu zuen eta testua Patxo Telleriak eta José Antonio Portillok prestatu zuten.**

En el escenario se creó un mundo secreto y subterráneo, que representaba el subsuelo de Bilbao, donde niños y niñas ponen a buen recaudo sus objetos más queridos, para preservarlos del olvido y para salvaguardar los recuerdos que esos objetos encierran. Un museo secreto y clandestino en que se atesora el tiempo. Un montaje que dirigió Fernando Bernués sobre un texto de Patxo Telleria y José Antonio Portillo.

## JONEREN BELDURRA / EL MIEDO DE JONE

**Besaulki-patioan, jarlekurik gabe, ikuskizunaren hirugarren zatia aurkeztu zen. Jone, neska protagonista, lo dago ohe izugarri baten gainean. Piratatxo alai batzuek bere beldurrari eta amesgaiztoei aurre egiten lagunduko diote eta ikusle gazteen laguntzaz egunsentiko argia sartuko da. Patxo Telleriaren testua eta Lluís Pasqualen zuzendaritza, zeinak jatorrizko ideiaren eta ikuskizun osoaren koordinazioaren ardura ere izan zuen.**

En la mitad del patio de butacas, libre de asientos, se representó la tercera parte de este espectáculo. Sobre la gran cama donde duerme Jone, la niña protagonista, unos animosos piratas le ayudarán a combatir su miedo, sus pesadillas, y lograr, con la ayuda de los jóvenes espectadores, que por fin amanezca. Con texto de Patxo Telleria y dirección de Lluís Pasqual, responsable además de la idea original y de la coordinación de todo el espectáculo.










## FAEMINO Y CANSADO

**ekaina 27 - 30** junio

**ESZENA IREKIA**
ESCENA ABIERTA

Ez zen lehenengo aldia Faemino y Cansado umorearen bikote handia Arriagako publikoaren aurrean agertzen zela. Aurkeztu zuten ikuskizunaren asmo bakarra barrea eragitea zela adierazi zuten, baina ez barre dotorea baizik eta barre-algara, algararik eskergena, zeure onetik ateratzen zaituen algara. Eta noski, bikoteak sobera lortu zuen bere helburua.

No era la primera vez que la soberbia pareja del humor Faemino y Cansado se presentaban ante el público del Arriaga. En esta ocasión manifestaban en su presentación no tener otra pretensión que provocar la risa, pero no una risa elegante sino más bien la carcajada, la carcajada más desaforada, la carcajada que te hace perder los papeles. No es necesario añadir que lo consiguieron con creces.



## LA REVISTA NEGRA

**abuztua 17 - iraila 2**
agosto 17 - septiembre 2

**MUSIKALA**
MUSICAL

Jérôme Savary-ren "La Revista Negra" musika ikuskizuna ez da 30. hamarkadan Parisen hainbeste arrakasta lortu zuen Joséphine Baker eta bere banana-gerriko ospetsuak interpretatutako ikuskizunaren berremanaldia; produktore baten istorioa da, zeina Katrina urakanak erraustutako New Orleans hiriko hondakinetan dantzari bat bilatzen ari den Joséphine Bakerren papera egin dezan berak antolatutako revival batean. XX. mendeko historia kulturala markatu zuten pertsonei eta musikari eginiko omenaldi bat da.

"La Revista Negra", el espectáculo musical de Jérôme Savary, no es una reposición del que en los años treinta triunfó en París con una jovencísima Joséphine Baker y su famoso cinturón de plátanos, sino la historia del productor que, entre las ruinas de una Nueva Orleáns devastada por el Katrina, busca una artista capaz de reencarnarla en el revival que prepara. Un homenaje a la gente y a la música que marcaron la historia cultural del siglo XX.





## HUMOR EN BLANCO Y NEGRO

ANTZERKIA
TEATRO

**abuztua 19 - 27** agosto

**Alexis Valdések eta Javier Veigak, aktore komiko gazte eta bikain hauek, ibilbide luzea egina dute zineman, antzerkian eta telebistan. Bi aktoreek beren ikuskizunak eta energiak batzea erabaki zuten, eta horrela, Aste Nagusian ("goizaldeko saioa" esaten diegun saioetako batean) barre egiteko aukera izan genuen bikoteak laguntasunari, musikari, poliziari, beltzei, Jainkoari, telebistari edo emakumeei buruz aurkeztu zituzten gogoetei esker.**

Alexis Valdés y Javier Veiga, dos de nuestros mejores actores cómicos jóvenes con amplias trayectorias en cine teatro y televisión, decidieron unir sus espectáculos y sus energías para ofrecernos durante nuestra Aste Nagusia, en unas sesiones que llamamos "golfas", la posibilidad de reír con su particular visión de la amistad, la música, la policía, los negros, Dios, la televisión o las mujeres.





## SALIR DEL ARMARIO

ANTZERKIA
TEATRO

**iraila 6 - 15** septiembre

**Francis Veber Frantziako komediografo handiak (besteak beste "La cena de los idiotas" bezalako arrakasten egilea) gizartearen hipokresiari buruzko komedia kritiko hau (ia fartsa bat) eskaini zigun. Veber-ek aurkezten duen gizarteak baldintza sexual guztiak onartzeko itxura egiten du, baina egiazki errezelo handiz begiratzen die oraindik ere betiko ohiturak jarraitzen ez dituztenei. Obraren egokitzapena eta zuzendaritza Juan José Artechek eta José Luis Sáizek egin zuten hurrenez hurren. Obran aktore bikainek parte hartzen dute, besteak beste, José Luis Gilek.**

Francis Veber, el gran comediógrafo francés actual, autor entre otros éxitos de "La cena de los idiotas", nos ofreció esta comedia crítica, casi una farsa, sobre la hipocresía social que en apariencia tolera todas las condiciones sexuales pero en realidad sigue guardando un notable recelo para cuantos no se atienen al comportamiento más convencional. Adaptada por Juan José Arteche y dirigida por José Luis Sáiz la obra contó dentro de su extraordinario reparto con José Luis Gil.



## GARRICK

ANTZERKIA
TEATRO

**iraila 19 - urria 7**
septiembre 19 - octubre 7

David Garrick XVIII. mendeko aktore ingeles ezagunak sen berezia zeukan komediarako. Izan ere, medikuek bere ikuskizunak gomendatzen zituzten arimaren penak uxatzeko, sendagai magikoa balitz bezala. Joan Gracia, Carles Sans eta Paco Mir aktoreek ikuskizun hau sortu dute aspaldiko lankide horren omenez. El Tricicle sortu zutenetik (1979tik) ohi bezala, hirukote honek malenkonia izpi guztiak desagerrarazi zizkiguten.

David Garrick, el reconocido actor inglés del siglo XVIII, estaba tan extraordinariamente dotado para la comedia, que los médicos recomendaban sus actuaciones como una especie de remedio mágico, capaz de sanar cualquier pena del alma. Joan Gracia, Carles Sans y Paco Mir, en homenaje a aquel remoto colega, han creado este espectáculo, que como todos los suyos desde que en 1979 fundaran El Tricicle, nos libró de cualquier resto de melancolía.



## ORFEO

OPERA BARROKOA
ÓPERA BARROCA

**urria 5** octubre

2007an, Claudio Monteverdiren "Orfeo" lanaren estrainaldiaren 400. urteurrena ospatu genuen Mantuako Ducal Jauregian. Monteverdi operaren historiako lehen jenioa dela esaten da. Eta urteurren hori ospatzeko modu hoberik al dago Ensemble La Fenice-k, Jean Túbery-k zuzentzen duen musikari talde entzutetsuak, eta Namur-eko Ganbera Abesbatzak eskainitako bertsioa ikustea baino?

El año 2007 celebramos el 400 aniversario del estreno, en el Palacio Ducal de Mantua, de "Orfeo" de Claudio Monteverdi, considerado el primer genio incontestable de la historia de la ópera. Ninguna forma mejor de celebrarlo que con la versión que de ella nos ofreció el Ensemble La Fenice, un grupo de reputados músicos dirigido por Jean Túbery y acompañados por el Coro de Cámara de Namur.

FUNDACIÓN FUNDAZIOA BILBAO 700 - III MILLENIUM

TEATRO ARRIAGA ANTZOKIA

**Ikuskizun hau gure agertokian izango da Bilbao 700 Fundazioaren eta Arriaga Antzokiaren arteko Lankidetza Hitzarmenari esker.**
Este espectáculo llega a nuestro escenario como fruto del Convenio de Colaboración entre la Fundación Bilbao 700 y el Teatro Arriaga.





## PORGY & BESS

urria 9 octubre

OPERA
ÓPERA

Errusiatik heldutako etorkin juduen seme-alabak, Georges eta Ira Gershwin, Broadway-ko egilerik entzutetsuenak bilakatu ziren “Rhapsody in blue”, “An American in Paris” edo “Porgy and Bess” operari esker. New York Harlem Theatre konpainiak eta Nafarroako Orkestra Sinfonikoak 1930eko Hego Karolinan gertatzen den maitasun istorio sutsu honen muntaia eskaini ziguten.

Georges y Ira Gershwin, hijos de emigrantes judíos rusos, se convirtieron en los autores de más prestigio de Broadway gracias a musicales como “Rhapsody in blue,” “An American in Paris” o la ópera “Porgy and Bess”. La compañía New York Harlem Theatre, acompañada por la Orquesta Sinfónica de Navarra, nos ofrecieron su montaje de esta tórrida historia de amor ambientada en la década de 1930 en Carolina del Sur.



## SUN FLOWER MOON

urria 12 - 13 octubre

DANTZA
DANZA

Momix dantza konpainia Arriaga Antzokira bueltatu zen Europa eta Asiako bira egin ondoren. Konpainia hau nazioartean ezaguna da bere sormen apartagatik eta egiten dituen ikuskizunen edertasunagatik. Oraingo honetan, konpainiak bere azken lana aurkeztu zuen: konpainiaren zuzendari eta koreografoa den Moses Pendleton-ek sortutako “Sun Flower Moon” obra, non irudi deigarriak nahasten baitira grabitateari desafio egiten dioten mugimenduekin. Obra honen xedea ametsak kontatzea da eta ez historia.

Después de una gira por Europa y Asia volvió al Teatro Arriaga la compañía de danza Momix, reconocida internacionalmente por su excepcional creatividad y la belleza de sus espectáculos. Nos ofreció el último de ellos, titulado “Sun Flower Moon”, obra de su director y coreógrafo Moses Pendleton, en el que se combinan llamativas imágenes con movimientos que desafían la gravedad, y que no pretende contar historias sino sueños.



## LOS TIGRES DEL NORTE

**ESZENA IREKIA**
ESCENA ABIERTA

urria 14 octubre

**Los Tigres del Norte, Grammy sari eta Zilarrezko disko asko irabazi dituen taldeak 14 abesti bikainez osatutako bere azken musika produkzioa aurkeztu zigun: "Detalles y emociones". Disko hau Estatu Batuetako eta Mexikoko mugako errealitate gogorraren istorioak zehaztasun osoz kontatzen dituzten corrido, ranchera eta baladez osatuta dago. Los Tigres del Norte kontzientzia sozialaren eta salaketaren ahotsa dira musika latinoaren barruan.**

Los Tigres del Norte, ganadores de múltiples premios Grammy y de discos de Platino nos presentaron su última producción musical titulada "Detalles y emociones", compuesta por 14 magníficos temas. Corridos, rancheras y baladas para narrar con lujo de detalles las historias de la convulsa realidad de la frontera mejicana con los Estados Unidos. Los Tigres del Norte son una voz de conciencia social y denuncia dentro de la música latina.





## MOTEZUMA

**OPERA BARROKOA**
ÓPERA BARROCA

urria 19 octubre

**Alan Curtis ipar-amerikarra musika barrokoko munduko aditurik entzutetsuenetakoa da eta Bilboko zaleek aukera izan zuten Arriaga Antzokian ikusteko "Il Complesso Barocco" lanean. Curtis-ek Antonio Vivaldiren Motezuma opera eskaini zigun. Motezuma operaren partitura, bizitasunez eta freskotasunez betea, galduta egon zen harik eta 2003an Kieven aurkitu zen arte. Libretoaren egokitzapen libre honek Motezumaren porrota eta Hernán Cortésen garaipena kontatzen digu.**

El estadounidense Alan Curtis, uno de los más prestigiosos expertos mundiales en música barroca, y a quien los aficionados bilbaínos han tenido ya ocasión de contemplar junto a "Il Complesso Barocco" en el Teatro Arriaga, nos ofreció esta ópera de Antonio Vivaldi cuya música, llena de vitalidad y frescura, se consideró perdida hasta su reciente hallazgo en el año 2003 en Kiev. Su libreto está muy libremente inspirado en la derrota de Moctezuma a manos de Hernán Cortés.

FUNDACIÓN FUNDAZIOA BILBAO 700 - III MILLENIUM

TEATRO ARRIAGA ANTZOKIA

**Ikuskizun hau gure agertokian izango da Bilbao 700 Fundazioaren eta Arriaga Antzokiaren arteko Lankidetza Hitzarmenari esker.**

Este espectáculo llega a nuestro escenario como fruto del Convenio de Colaboración entre la Fundación Bilbao 700 y el Teatro Arriaga.





## PIER PAUL BERZAITZ

urria 20 octubre

ESZENA IREKIA
ESCENA ABIERTA

**Pier Paul Berzaitzek (Müskildi, Xiberoa, 1952) 35 urte baino gehiago daramatza musikaren munduan. Zuberoako abeslari apartak kontzertu bat eman zuen Eszena Irekia atalean. Bere interpretazioek daukaten balio estetiko eta artistiko handiari eta bere lanen herri oinarri sendoari esker (abesti beti ederrak, zintzoak eta gogoangarriak), Berzaitz oso pertsona maitatua eta miretsia bihurtu da bai Zuberoan eta bai Euskal Herri osoan ere.**

Pier Paul Berzaitz (Müskildi, Xiberoa, 1952), con más de 35 años de actividad musical a su espalda, un cantante suletino imprescindible, nos visitó dentro del apartado de Escena Abierta. El alto valor estético y artístico de sus interpretaciones y el enorme potencial popular de sus creaciones, siempre bellas, nobles y añorantes, convierten a Berzaitz en un personaje querido y admirado en Zuberoa y en todo Euskal Herria.



## THE WATERBOYS

urria 23 octubre

ESZENA IREKIA
ESCENA ABIERTA

**Irlandako The Waterboys taldea azken 20 urteetako musika herrikoiaren talderik esanguratsuenetakoa da eta hemen izan genituen bere, azken diskoa, "Book of Lighting", aurkezteko. Taldea Steve Wickham, Richard Naiff, Mark Smith eta Damon Wilson musikariek osatzen dute eta Mike Scott-ek zuzentzen du. Folk musikaz jantzitako eta rock eta popez zipriztindutako melodia izugarriak entzuteko aukera izan genuen.**

La banda irlandesa The Waterboys, figura capital de la música popular de los últimos 20 años, nos visitó dentro de la gira de presentación de su último disco "Book of Lightning". Mike Scott al frente de la banda al completo, Steve Wickham, Richard Naiff, Mark Smith y Damon Wilson nos ofreció su repertorio de grandes melodías empapadas de folk y salpicadas por actitud rock y clase pop.



## NACHA POP
urria 24 octubre

ESZENA IREKIA
ESCENA ABIERTA

Nacha Pop, 1980-1988an Espainiako musika panoraman arrakasta lortu zuen musika talde mitikoak berriz ere taularatzea erabaki du 19 urte geroago eta kontzertu bat eskaini ziguten Arriagan. Jende askok amesten zuen Espainiako pop musikako talde honen bueltarekin. Berpizte honetan, taldeak betiko abestiak ekarri zituen gogora. Gainera, bakoitzaren bakarkako lan batzuk eta Nacho eta Antoniok, elkarrekin edo banaka, sortutako abesti berri batzuk ere aurkeztu zituzten.

Nacha Pop, el mítico grupo musical, que entre 1980 y 1988 triunfó en el panorama musical español, 19 años más tarde decidió volver y nos ofreció un concierto en el Arriaga. En el retorno más añorado de la música pop española, reavivaron sus canciones de siempre junto a temas de sus experiencias en solitario, más algunas nuevas canciones compuestas por Nacho y Antonio juntos o por separado.



## MARAT SADE
urria 26 - 27 octubre

ANTZERKIA
TEATRO

Animalario taldeak, Zentro Dramatiko Nazionalarekin batera, XX. mendeko antzerki obrarik arrakastatsuenetako baten muntaia eskaini zigun: Peter Weiss (1916-1982) antzerkigile alemaniarraren "Marat-Sade" lana. Andrés Limak zuzendu zuen Alfonso Sastrek eginiko bertsioa eta bertan, besteak beste, ondoren aipatzen diren aktore bikainek parte hartu zuen: Alberto San Juan, Pedro Casablanc, Miguel Rellán, Natalie Poza, Javivi eta Tomás Pozzi.

El grupo Animalario en coproducción con el Centro Dramático Nacional nos ofreció el montaje de uno de los títulos más afamados del teatro del siglo XX: "Marat-Sade" del dramaturgo alemán Peter Weiss (1916 - 1982). En versión de Alfonso Sastre y con la dirección de Andrés Lima, el montaje contó con un soberbio y amplio reparto con Alberto San Juan, Pedro Casablanc, Miguel Rellán, Natalie Poza, Javivi y Tomás Pozzi, entre otros muchos.

CDN
Centro Dramático Nacional





## GOLDEN APPLE QUARTET

ESZENA IREKIA
ESCENA ABIERTA

urria 28 octubre

**Golden Apple Quartet-ek bere zazpigarren ikuskizuna, "Los Golden en serio", eskaini ziguten taldearen 21. urteurrena ospatzeko. Lau komiko eta abeslari hauek berentzat oso berriak diren estiloak lantzen dituzte ikuskizun honetan, adibidez, flamenkoa, opera, gargarak, zirkoa, malabarismoa eta txotxongiloak. Patxi Barcok prestatu du ikuskizunaren gidoia eta Carlos Zabala izan da zuzendaria.**

Para celebrar los 21 años de la compañía, Golden Apple Quartet nos ofreció su séptimo espectáculo, que titularon "Los Golden en serio". En él, estos cuatro cómicos y cantantes se acercan a estilos tan novedosos para ellos como el flamenco, la ópera, las gárgaras, el circo, los malabarismos e incluso las marionetas. Patxi Barco es el autor del guión y Carlos Zabala el director del espectáculo.





## ME ACORDARÉ DE TODOS VOSOTROS

ANTZERKIA
TEATRO

urria 29 - 30 octubre

**Teatro de la Abadía-ren enkarguz, Ana Vallések "Me acordaré de todos vosotros" lana sortu zuen. Ikuskizun honek ez du argudioa garatzen duen testurik eta horrenbestez, antzerkia aktoreekin sortzen da. Izan ere, aktoreak antzerkiaren elementu ezinbestekoak eta ordezkaezinak baitira, hau da, edukiaren zati dira eta ez interprete soilak. Antzerki ikerketa honetan ikusleak eszenatokian ikusten duena ez da gezurrezkoa; ikusleak pertsonak ikusten ditu eta haien lana ez da interpretazio bat, baizik eta gertaera bat.**

Tras recibir el encargo del Teatro de la Abadía, Ana Vallés creó "Me acordaré de todos vosotros", un espectáculo sin un texto que desarrolle un argumento, creando teatro con los actores, que son piezas necesarias e irreemplazables, parte del contenido y no meros intérpretes. Investigación teatral donde lo que el espectador ve en el escenario no son ficciones, son personas y su trabajo no es una representación, sino más bien un acontecimiento.

Teatro de La Abadía





## HOMEBODY/KABUL

ANTZERKIA
TEATRO

**azaroa 1 - 3** noviembre

**Teatro Español-en eskutik iritsi zitzaigun asmo handiko muntaia hau. Mario Gasek zuzendu zuen New Yorkeko Tony Kushner egile juduaren "Homebody/Kabul" (Etxean/Kabul-en) obra. Gaurkotasun mingarria daukan ikuskizun honen egileaz esan izan da talibanek egiten dituzten sarraskien kontrako oihua dela, baita Estatu Batuen, CIAren, SESBren, Bin Laden-en, arma trafikoaren, eta abarren kontrako oihua ere".**

El Teatro Español nos presentó el ambicioso montaje, dirigido por Mario Gas, de la obra "Homebody/Kabul" (En casa/En Kabul), de la que es autor el judío neoyorquino Tony Kushner. De su obra, un espectáculo de dolorosa actualidad, ha dicho que se trata de un "alegato contra las atrocidades de los talibanes. Y de paso, contra Estados Unidos, la CIA, la URSS, Bin Laden, el tráfico de armas...".

TEATROESPAÑOL



## DE MAHAGONNY A YOUKALI, UN VIAJE CON KURT WEILL

ESZENA IREKIA
ESCENA ABIERTA

**azaroa 4** noviembre

**Vicky Peña aktore handiak eta Jordi Camell piano-joleak Kurt Weill musikari alemaniarraren bizitza eta abestiei buruzko ikuskizuna eskaini ziguten. Dessau-n jaio (1900) eta New York-en zendu zen (1950) musikaria beti egon zen bere garaiko artearekin lotuta eta batez ere ezaguna da antzerkirako egin zituen konposizioengatik eta Bertolt Brecht antzerkigilearekin egindako lanengatik.**

La gran actriz Vicky Peña, acompañada al piano por Jordi Camell, nos ofreció este espectáculo alrededor de la vida y las canciones de Kurt Weill, el gran músico alemán, nacido en Dessau en 1900 y muerto en Nueva York en 1950. Hombre comprometido con el arte de su tiempo, es conocido sobre todo por sus composiciones para el teatro y por su colaboración con el dramaturgo Bertolt Brecht.



## PABLO DE NAVERÁN & ALEXANDER KANDELAKI

**KONTZERTUA**
CONCIERTO

**azaroa 5** noviembre

**Sari ugari jaso dituen Pablo de Naverán biolontxelo-jole bilbotarrak eta Georgiako Alexander Kandelaki piano-joleak eskainitako kontzertuan ondoren aipatzen diren egileen obrak entzun ahal izan genituen: Alfred Schnittke, Franz Schubert, Frédéric Chopin eta Cesar Franck. Bi interprete gazte hauek lehen aldiz jo zuten elkarrekin 2000. urtean, Bruselako Errege Kontserbatorio Nazionalaren Grande Salle-n. Orduz geroztik, Frantzia, Suitza, Alemania eta Belgika bezalako herrialdeetan jo dute.**

El laureado violonchelista bilbaíno Pablo de Naverán y el pianista georgiano Alexander Kandelaki nos ofrecieron un programa con obras de Alfred Schnittke, Franz Schubert, Frédéric Chopin y Cesar Franck. Estos dos jóvenes intérpretes se presentaron juntos por primera vez en el año 2000 en la Grande Salle del Real Conservatorio Nacional de Bruselas. Desde entonces han actuado en países como Francia, Suiza, Alemania y Bélgica, entre otros.





## MUJERES EN SUS CAMAS

**ANTZERKIA**
TEATRO

**azaroa 6 - 7** noviembre

**Tanttaka Teatroak "Mujeres en sus camas" muntaia aurkeztu zigun, sexuaz, hots, emakumeen bizitza sexualaz hitz egiteko sortutako ikuskizuna. Obrak emakumeek izarapean izaten dituzten nahiak, fantasiak eta frustrazioak kontatzen ditu. Lanaren egileek, Lurdes Bañuelosek eta Mireia Gabilondok, Euskal Herriko 350 emakumeren testigantzak oinarritzat hartu zituzten beren eszena fikzioaren abiapuntua sortzeko.**

Tanttaka Teatroa nos ofreció el montaje de "Mujeres en sus camas", un espectáculo creado para hablar de sexo, de la vida sexual de las mujeres. De los anhelos, las fantasías y las frustraciones de las mujeres en sus camas. Sus autoras, Lurdes Bañuelos y Mireia Gabilondo, recurrieron a 350 testimonios reales de mujeres recogidos en el País Vasco que les sirvieron de punto de partida para su ficción escénica.





## LA CONSAGRACIÓN DE LA PRIMAVERA

DANTZA
DANZA

azaroa 9 - 10 noviembre

Heddy Maalen konpainiak Igor Straviskyren “Udaberriaren Sagaratzea” lanaren ikuspegi ezberdin bat eskaini zigun Arriagan. Konpainiari izena ematen dion koreografo eta zuzendaria Aljerian jaio zen eta dantzaren mundura iritsi zen boxeoa eta aikidoa egin ondoren. 14 dantzari afrikarrek interpretatzen duten ikuskizunaren estreinaldia 2004an egin zen eta Frantzia, Italia, Suitza, Portugal, Holanda eta Polonian aurkeztu da.

La Compañía Heddy Maalen se presentó en el Arriaga ofreciéndonos una visión diferente de “La consagración de la Primavera” de Igor Stravinsky. El coreógrafo y director que da nombre a la compañía nació en Argelia y llegó a la danza después de practicar el boxeo y el aikido. Estrenó este espectáculo, interpretado por 14 bailarines de origen africano, en 2004 recorriendo con él Francia, Italia, Suiza, Portugal, Holanda y Polonia.

## RENÉ JACOBS & ORQUESTA BARROCA DE FRIBURGO

KONTZERTU BARROKOA
CONCIERTO BARROCO

azaroa 12 noviembre

Friburgoko Orkestra Barroko entzutetsuaren “musika sorterria” XVII. eta XVIII. mendeetako musika da. Orkestra honek Haydn, Glück eta Mozarten oinarritutako programa gozagarri bat eskaini zigun. Kontzertua René Jacobs flandestarrak zuzendu zuen. Jacobs-ek bere ibilbide artistikoa kontratenor bezala hasi bazuen ere, azken urteotan arrakasta handia lortu du musika barrokoan eta klasikoan aditua den orkestra zuzendari lanetan.

La prestigiosa Orquesta Barroca de Friburgo, que no en vano considera su “patria musical” las obras de los siglos XVII y XVIII, nos ofreció un delicioso programa basado en Haydn, Glück y Mozart. El concierto estuvo dirigido por el flamenco René Jacobs, que inició con gran éxito su carrera como contratenor, y que en los últimos años ha visto aclamada su labor como director de orquesta especializado en música barroca y clásica.

FUNDACIÓN FUNDAZIOA BILBAO 700 - III MILLENIUM

TEATRO ARRIAGA ANTZOKIA

**Ikuskizun hau gure agertokian izango da Bilbao 700 Fundazioaren eta Arriaga Antzokiaren arteko Lankidetza Hitzarmenari esker.**

Este espectáculo llega a nuestro escenario como fruto del Convenio de Colaboración entre la Fundación Bilbao 700 y el Teatro Arriaga.







## MICHEL CAMILO & TOMATITO

ESZENA IREKIA
ESCENA ABIERTA

azaroa 13 noviembre

**Jatorri eta prestakuntza oso ezberdina daukaten bi artista aparta hauek beren artea elkartu zuten musika saio bikain bat eskaintzeko. Michel Camilo jazz piano-jole dominikarra eta Tomatito flamenko gitarra-jolea. Bi artista hauek Bartzelonan jo zuten elkarrekin lehen aldiz, Tete Montoliúri egindako omenaldian (1997) . Orduz geroztik, munduko jazz jaialdirik entzutetsuenetan parte hartu dute eta "Spain" albumari esker 2000. urtean Grammy latinoa irabazi zuten.**

Dos extraordinarios artistas de origen y formación muy distintos se unieron para ofrecernos una gran velada musical. El pianista de jazz dominicano Michel Camilo y el guitarrista flamenco Tomatito. Su primera colaboración se produjo en Barcelona en un homenaje a Tete Montoliú en 1997. Desde entonces han actuado en los festivales de jazz más importantes del mundo y con el álbum "Spain" ganaron un Grammy latino en el año 2000.





## WILLIAM CHRISTIE

azaroa 16 noviembre

KONTZERTU BARROKOA
CONCIERTO BARROCA

**William Christie klabezin-jolea eta zuzendari handia Arriaga Antzokiko programazio ia guztietan agertzen da, eta nola ez, hemen izan genuen berriz ere. Oraingoan, Frantziako barrokoko konpositoreen musikaz osatutako programa bikain bat eskaini zigun. Les Arts Florissant ahots eta instrumentu taldea ere berarekin etorri zen. Les Arts Florissant antzinako eta barrokoko musika taldea oso ezaguna da bai Europan eta bai nazioartean ere, eta aditua da instrumentu berezien interpretazioan.**

El gran clavecinista y director William Christie, casi un habitual de la programación del Teatro Arriaga, volvió a visitarnos con un extraordinario programa de música de compositores del barroco francés. Lo hizo acompañado del grupo vocal e instrumental Les Arts Florissants, una de las formaciones de música antigua y barroca más reconocidas de Europa y del panorama internacional, especializado en la interpretación de música con sus instrumentos originales.

**Ikuskizun hau gure agertokian izango da Bilbao 700 Fundazioaren eta Arriaga Antzokiaren arteko Lankidetza Hitzarmenari esker.**

Este espectáculo llega a nuestro escenario como fruto del Convenio de Colaboración entre la Fundación Bilbao 700 y el Teatro Arriaga.





## CLOSER
azaroa 17 - 18 noviembre

ANTZERKIA
TEATRO

**1977an Londresko Royal National Theatre antzokian estreinatu zenez geroztik, "Closer" munduko hiriburu handienetan antzeztu da, hogei hizkuntzatara itzuli da eta kritika eta saririk onenak jaso ditu. Muntaia hau Mariano Barroso zinemagilearen zuzendaritzapean iritsi zitzaigun Bilbora eta Belén Rueda zinemako eta telebistako aktore bikainak (lehen aldiz antzezlan batean) interpretatu zuen.**

"Closer", la obra estrenada en 1977 en el Royal National Theatre de Londres y que ha sido representada en las más importantes capitales del mundo, traducida a más de veinte idiomas y recibido las mejores críticas y los más prestigiosos premios llegó a Bilbao en un montaje dirigido por el cineasta Mariano Barroso y protagonizado por Belén Rueda, la brillante actriz de cine y televisión, en su primera incursión teatral.



## FEDRA
azaroa 20 - 24 noviembre

ANTZERKIA
TEATRO

**Pentación Espectáculos-en eta Meridako Antzerki Klasikoaren Jaialdiaren lankidetzari esker (obraren ekoizleak hain zuzen), Fedra mito klasikoaren bertsio berria ikusteko aukera izan genuen. Egilea Juan Mayorga da, gaur egun gehien antzezten den eta ospe gehien duen egileetako bat. José Carlos Plazak zuzendu zuen ikuskizuna, egungo antzerki zuzendaririk onenetakoak, eta Ana Belének interpretatu zuen senarraren semearekin maiteminduta dagoen emakumearen rola.**

Gracias a la colaboración de Pentación Espectáculos y del Festival del Teatro Clásico de Mérida, que la coprodujeron, nos llegó esta nueva versión del mito clásico de Fedra. El autor de ella es Juan Mayorga uno de los autores de la actualidad más representados y más prestigiosos. La dirigió José Carlos Plaza, uno de los mejores directores teatrales de nuestro panorama, y Ana Belén dio vida a la mujer enamorada del hijo de su marido.



# BALLET NACIONAL DE ESPAÑA

DANTZA
DANZA

abendua 6 - 8 diciembre

**Berriz ere izan dugu Espainiako Balet Nazionala Arriaga Antzokian ikusteko aukera. Oraingoan, Baletak programa bikoitz zoragarri bat eskaini zigun. Batetik, Joaquín Turinaren musika entzun ahal izan genuen Antonio dantzari handiaren omenez. Bestetik, Encarnación López "La Argentinita"-k 1943an sortutako "El Café de Chinitas" ikuskizuna. Federico García Lorcaren abestiak eta Salvador Dalík sortutako oihalen kopiak ere ederretsi genituen.**

Volvió al Teatro Arriaga el Ballet Nacional de España, ofreciéndonos un extraordinario programa doble. En primer lugar, con música de Joaquín Turina, un homenaje al gran bailarín Antonio. En segundo, "El Café de Chinitas", espectáculo creado en 1943 por Encarnación López "La Argentinita", con música de canciones populares recogidas por Federico García Lorca y telones creados por Salvador Dalí, que se han reproducido para este montaje.

# FALETE

abendua 11 diciembre

ESZENA IREKIA
ESCENA ABIERTA

**Faletek kontzertu bat eskaini zigun bere azken diskoa aurkezteko: "Coplas que nos han matao". Diskoaren izenburua Manuel Machadoren bertso honetan oinarritzen da: "A todos nos han cantado, en una noche de juerga, coplas que nos han matado". Faletek disko honetan betiko abestiak dakarzkigu gogora, baina bere estilo propioa eta adierazpen indartsuaren ukitua emanez. Sevillako abeslari honen lanen artean, "Amar duele" edo "Puta Mentira" aipa ditzakegu.**

Se presentó Falete sobre nuestro escenario en un concierto para presentar su último trabajo discográfico, "Coplas que nos han matao", título que alude al verso de Manuel Machado: "A todos nos han cantado, en una noche de juerga, coplas que nos han matado". Un repaso por las canciones de siempre con el personalísimo estilo y la intensidad expresiva de este sevillano, que cuenta con trabajos como "Amar duele" o "Puta mentira".

MINISTERIO DE CULTURA | INSTITUTO NACIONAL DE LAS ARTES ESCÉNICAS Y DE LA MÚSICA





# AINHOA ARTETA & ISMAEL JORDI

KONTZERTUA
CONCIERTO

abendua 12 diciembre

Kontzertu liriko eder batez gozatzeko aukera izan genuen Arriaga Antzokian. Kontzertuaren interpreteak, alde batetik, Ainhoa Arteta donostiarra, egungo sopranorik onenetakoa (bere heldutasun artistikoa eta bokala lortu duena) eta, bestetik, Ismael Jordi jereztarra, nazioarteko proiekzio gehien duen Espainiako tenorra eta kritikak "XXI. mendeko tenorra" izendatu duena. Bi interpreteak Rubén Fernández Aguirre piano-jolearekin batera aritu ziren.

Sobre el escenario del Teatro Arriaga pudimos disfrutar de un hermoso concierto lírico, interpretado por una de las sopranos más importantes de la actualidad, la donostiarra Ainhoa Arteta, en su plenitud artística y vocal, y por uno de los jóvenes tenores españoles con mayor y mejor proyección internacional, el jerezano Ismael Jordi, calificado por la crítica como "el tenor del siglo XXI", acompañados ambos al piano por Rubén Fernández Aguirre.





# EL PRINCIPITO

ANTZERKIA
TEATRO

abendua 14 - 15 diciembre

Producciones Come y Calla-k Antoine de Saint Exupery-ren istorio xamurraren antzerki egokitzapena eskaini zigun Pablo R. Escolaren zuzendaritzapean eta Emilio Sagiren aholkularitzarekin. Istorioak zera kontatzen digu: urrutiko asteroide batean aspertuta bizi den printze txiki batek bidai bat egitea erabakitzen du, eta hor abiatzen da planetaz planeta Lurrera iritsi arte. Haur literaturaren eta, oro har, literaturako obra klasikoaren antzerki egokitzapen honek jatorrizko xarma guztia gordetzen du.

Producciones Come y Calla, con la dirección de Pablo R. Escola y la asesoría de Emilio Sagi, nos ofreció la adaptación teatral de la deliciosa historia de Antoine de Saint Exupery sobre un principito, que se aburre en su remoto asteroide y decide iniciar un viaje por diversos planetas, hasta llegar a la Tierra. Un clásico de la literatura infantil, un clásico de la literatura sencillamente, llevado al escenario con todo su encanto.





## NICOLAÏ LUGANSKY

KONTZERTUA
CONCIERTO

abendua 17 diciembre

**Nikolaï Lugansky piano-jole gazte eta entzutetsuak Schumann, Prokofiev eta Liszt-en musikaz osatutako programa bikain bat aurkeztu zuen Arriaga Antzokian. Moskun,1972an jaio zen piano-jole honek nazioarteko saririk entzutetsuenak irabazi ditu eta Londres, Paris, Amsterdam, Viena edo Bruselako areto nagusienetan jo du, bai solista bezala, eta baita Europa, Estatu Batuak edo Japongo orkestrarik onenekin batera ere.**

El joven y consagrado pianista Nikolaï Lugansky se presentó en el Arriaga con un exigente programa de música de Schumann, Prokofiev y Liszt. Este moscovita, nacido en 1972 y galardonado con los más prestigiosos premios internacionales, ha actuado en las principales sala de Londres, París, Ámsterdam, Viena o Bruselas, solo o acompañado por algunas de las mejores orquestas de Europa, Estados Unidos o Japón.



## BIDEAK

DANTZA
DANZA

abendua 18 diciembre

**Edu Muruamendiarazek zuzentzen duen Aukeran Dantza Konpainia donostiarra Arriagako eszenatokira bueltatu zen bere azken produkzioa aurkeztera: "Bideak". Aukeran dantza taldeak badaki kultur nahasketa handiko mundu batean bizi garela, eta horregatik, sortu zenetik bere estiloa bilatzen aritu da erritmo, melodia eta folklore tradizionalaren elementuak dantza garaikidearekin nahastuz eta bertako musikak fusionatuz geroz eta urrutiago dauden eta aldi berean ezagunago ditugun beste musika batzuekin.**

La donostiarra Compañía de Danza Aukeran, dirigida por Edu Muruamendiaraz, volvió al escenario del Arriaga para ofrecernos su última producción, "Bideak". Desde su fundación Aukeran, conscientes de que vivimos en un mundo de mestizaje cultural, han buscado su estilo usando la fusión de ritmos, melodías y elementos del folklore tradicional con la danza contemporánea y fusionando los ritmos más nuestros con músicas que resultan a la vez lejanas y familiares.



# COPPÉLIA

abendua 20 - 22 diciembre

DANTZA
DANZA

**Victor Ullate Comunidad de Madrid Baleta maiz izan da Arriaga Antzokian. Oraingoan, bere azken produkzioa aurkeztu zigun: "Coppélia", Leo Delibesen musikarekin eta Eduardo Laoren koreografia eta zuzendaritza artistikoarekin. Konpainiak bere gaitasun tekniko eta artistikoa erakutsi zigun berriro dantzaren historiaren obrarik ezagunenetarikoa eta herrikoienetakoa interpretatuz.**

El Ballet Victor Ullate Comunidad de Madrid, un habitual desde su fundación en la programación del Teatro Arriaga, volvió a visitarnos para ofrecernos su última producción: "Coppélia", con la música de Leo Delibes y la coreografía y dirección artística de Eduardo Lao. En ella la compañía desplegó, una vez más, su capacidad técnica y artística, actualizando una de las piezas más emblemáticas y populares de la historia de la danza.



# QUIQUE GONZÁLEZ

abendua 23 diciembre

ESZENA IREKIA
ESCENA ABIERTA

**Quique Gonzálezek (Madril, 1973) 1997an atera zuen bere lehen diskoa. Hamar urte hauetan bere ibilbidea sendotu eta kalitatezko artista bilakatu da. Bereak, abesti kartsuak dira, intimitatez eta elektrizitatez beteak... Arriagako eszenatokira igo zen bere azken diskoa aurkezteko: "Avería y redención número 7". La Aristocracia del Barrio bere banda berriarekin grabatutako diskoa beste aurrera pausu bat da artistaren ibilbidean.**

Quique González, madrileño de 1973, cuyo primer disco data ya de 1997 y que en estos diez años de carrera se ha consolidado como un artista de calidad, con canciones llenas de garra, intimidad y también de electricidad, ocupó nuestro escenario para presentar su último álbum titulado "Avería y redención número 7". Un álbum grabado junto a su nueva banda, La Aristocracia del Barrio, y que supone un paso más en la carrera de este artista.



## UGANDA NATUMAYINI

ESZENA IREKIA
ESCENA ABIERTA

abendua 26 diciembre

**"Bizitzak salbatzeko musika" ekimenari esker, Ugandako neska-mutil umezurtzez osatuta dagoen talde honek Uganda eta Ruandako dantza tribalez osatutako ikuskizuna eskaini zigun, Jingo George eta Kayira Grace-n zuzendaritzapean. Oporraldietan egiten duten jarduera honi esker, beren hezkuntza eta lagunena ordaintzen dute. Era berean, aukera eskaintzen digute haien kultura ezagutzeko eta beren misioan parte hartzeko.**

Gracias a la iniciativa de Música para Salvar Vidas, un conjunto de niños y niñas de Uganda, huérfanos de padre y madre, nos ofrecieron un espectáculo de danzas tribales de Uganda y Ruanda, dirigido por Jingo George y Kayira Grace. Con esta actividad, que desarrollan durante sus vacaciones, ayudan a costear su educación y la de sus compañeros y nos ofrecen a nosotros la posibilidad de acercarnos a su cultura y colaborar con su misión.



## LOLITA

ESZENA IREKIA
ESCENA ABIERTA

abendua 27 diciembre

**Lolita Arriagara itzuli zen argitaratu duen azken diskoaren abesti berriak aurkeztera. "Sigue caminando" lanean, Lolitak agerian utzi zigun abeslari eta egile bezala duen kalitatea. Hamaika abesti berri abestu zituen non Espainiako abestien muga gaindituz, son kubatarra, jazza, boleroa edo ustekabeko pop-rock ukituak ere sartu dituen.**

Volvió al escenario del Arriaga Lolita con sus nuevas canciones, recogidas en su último disco publicado, "Sigue caminando", donde nos muestra su conocida calidad de intérprete y su inspiración como autora. Once nuevos temas donde se mueve con soltura más allá de las fronteras de la canción española, con incursiones en el son cubano, el jazz, el bolero y hasta algún guiño inesperado al pop-rock.



# EL DÍA DEL PADRE

abendua 28 - 30 diciembre

ANTZERKIA
TEATRO

**“El día del Padre” obulua konkistatu beharrez elkarrekin lehian sartutako espermatozoide batzuen arteko gorabeheren gaineko komedia zurrunbilotsua da eta Ana Graciani eta Gabriel Olivares dira egileak. Lau aktore bikainek -besteak beste, Aitor Mazo bilbotarra- interpretatutako obra honekin itxi genuen antzerki urtea. “El día del padre” komediak, Ionesco, Marx anaiak, Lubitsch edo La Cava-ren umorean oinarrituta, ondorengo galdera planteatzen du: zergatik nahi dute gizonezkoek aita izan?**

Ana Graciani y Gabriel Olivares son los autores de esta trepidante comedia sobre una singular pugna de espermatozoides por conquistar un óvulo, que cuatro estupendos actores, entre ellos el bilbaíno Aitor Mazo, nos ofrecieron para cerrar el año teatral. “El día del padre” es una comedia que plantea por qué quieren los hombres ser padres y que se inspira en el humor de Ionesco, los Hermanos Marx, Lubitsch o La Cava.





ABAO txiki

TEATRO ARRIAGA ANTZOKIA

## EL PEQUEÑO DESHOLLINADOR
**urtarrila 4, 6, 7** enero

## DULCINEA
**otsaila 9 - 11** febrero

## LA BELLA DURMIENTE
**martxoa 9 - 11** marzo

## EL CARNAVAL DE LOS ANIMALES
**ekaina 1 - 3** junio

## EL TRAJE NUEVO DEL EMPERADOR
**urria 21 - 22** octubre















ZINEBI

**ZINEBI 2007 - ZINEMA JAIALDIA**
ZINEBI 2007 - FESTIVAL DE CINE

## ZINEBIren 49. EDIZIOA
## 49 EDICIÓN DE ZINEBI

2007ko azaroaren 26tik abenduaren 1era bitartean burututako edizioa.
**Sail Ofiziala / Nazioarteko Lehiaketa**
Bere lehenbiziko mende erdia betetzeko urtebete baizik geratzen ez zitzaionean, ZINEBIren 4. edizioa ospatu zen. Edizio horretara 75 herrialdetatik heldutako 2.648 film aurkeztu ziren eta horietatik Hautaketa Batzordeak 92 aukeratu zituen, 38 herrialdetakoak. Aukeratuen artean Espainiako 20 film zeuden eta horietatik 9 Euskal Herrikoak ziren.
Euskal Zinema Sailean ondoko filmak aukeratu ziren Nazioarteko Lehiaketarako:
- "Columba Palumbus" (Uso basatia) egilea Koldo Almandoz (fikzioa).
- "La carta del amigo" egilea José Julián Bakedano (fikzioa).
- "Limoncello" egileak L. A. Berdejo, B. Cobeaga eta J. Dorado (fik.).
- "Taxi?" egilea Telmo Esnal (fikzioa).
- "Tex Norton" egilea Jon Garaño (fikzioa).
- "Decir adiós" egilea Víctor Iriarte (fikzioa).
- "Las horas muertas" egilea Haritz Zubillaga (fikzioa).
- "Footnotes to a house of love" egilea Laida Lertxundi (dokumentala).
- "Hezurbeltzak, una fosa común" egilea Izibene Oñederra (animazioa).

Espainiako Zinema Sailean ondoko filmak lehiatu ziren:
- "Aprop" egilea Aitor Echevarría (fikzioa).
- " Las olas" egilea Pablo Llorca (fikzioa).
- "208 palabras" egilea Avelina Prat (fikzioa).
- "Paseo" egilea Arturo Ruiz (fikzioa).
- "No es buena idea" egilea Ugo Sanz (fikzioa).
- "El camino de Ana" egilea Richard Vázquez (fikzioa).
- "Retro visión" egilea Mauricio Godoy (dokumentala).
- "Familia 068" egileak Rubén Margalló eta Toni Edo (dokum.).
- "El niño y el mar" egilea Tito Molina, Espainia eta Ekuadorren arteko koprodukzioa (dokumentala).
- "La flor más grande del mundo" egilea Juan Pablo Etcheverry (anim.).
- "Jazz song" egilea Jorge González Varela (animazioa).

Lehiaketarako aukeratutako 92 filmak generoka sailkatuz gero (Jaialdiko arautegiak hiru genero onartzen ditu: fikzioa, dokumentala eta animazioa), 52 film fikziozkoak dira, 21 dokumentalak eta 19 animaziozkoak. Banaketa geografikoari dagokionez, berriz, hauek dira film gehien aurkeztu dituzten herrialdeak: Estatu Batuak (10 film), Frantzia (7), Alemania (5) eta Erresuma Batua (4).
Euskal Herriko eta Espainiako Zinemak bezala Palmares Ofizialean Sari berezia duen Latinoamerikako Sailari dagokionez, aurreko edizioan ondoko herrialdetako filmak aurkeztu ziren: Argentina, Brasil, Txile, Kolonbia, Ekuador (lehen aldiz), Mexiko, Peru, Uruguai eta Venezuela. Herrialde eta gune geografiko eta kultural hain ezberdinetako filmak biltzen dituen Lehiaketa honek frogatua du horrenbestez bere izaera unibertsala.

Edición celebrada del 26 de noviembre al 1 de diciembre de 2007.
**Sección Oficial / Concurso Internacional**
A sólo un año de cumplir su primer medio siglo de vida, ZINEBI celebró su 49ª edición con 2.648 películas inscritas, enviadas desde 75 países, de las cuales el Comité de Selección eligió 92, pertenecientes a 38 países, para el concurso Internacional. De ellas, 20 fueron españolas, entre las que se incluyeron 9 vascas.
En el apartado de Cine Vasco fueron seleccionadas para el Concurso Internacional las siguientes:
- "Columba Palumbus" (Uso basatia) de Koldo Almandoz (ficción).
- "La carta del amigo" de José Julián Bakedano (ficción).
- "Limoncello" de Luis A. Berdejo, Borja Cobeaga y Jorge Dorado (fic.).
- "Taxi?" de Telmo Esnal (ficción).
- "Tex Norton" de Jon Garaño (ficción).
- "Decir adiós" de Víctor Iriarte (ficción).
